



Usue Arrieta eta Vicente Vazquez

Munduan egoteko modua



Xabier Gantzarain
@gantzarain

GELDI 2011-2017. GOITIBEHERA JAITSIERAK (2018)

Liburua. 628 orrialde.

Durango Azokak ematen dituen uste-kabeen artean, aurtengoa poztekoa izan da, argitaletxe berri bat aurkeztu baitute bertan: -zko. Nader Koochakik eta Usue Arrietak egin zuten aurkezpena: “-zko, Tractora Koop. E. artisten kooperatibaren baitan sortu den egitasmo bat da. Bere helburua, artearen eta bestelako ezagutza diziplinen artean kokatzen diren lanak argitaratzea eta zabaltzea da”.

Bi albiste on bakarrean: artisten kooperatiba bat, eta argitaletxea. Hiru, hobeto esanda: kooperatiba, argitaletxea, eta liburua. *Geldi 2011-2017. Goitibehera jaitsierak* ez da liburua esanda ulertu ohi duguna, baina edozeri artefaktua

deitzen zaion garaiotan, nahiago dut honi liburu deitzea.

200 ale atera dituzte: 6 liburuxka egileen, Jeremy Macclancy, Nader Koochakik eta Diego Carbajoren testuekin, 89 goitibehera fitxa, 59 jaitsiera fitxa, poster bat, argazki album bat, kartografia, inbentario indizeak, lehiaketen klasifikazioak... Gehiegizkoa da, asmo entziklopedikoa du. Goitibeheren inguruko guztia biltzen saiatu dira Vicente Vázquez (Tarragona, 1976ko uztailaren 28a) eta Usue Arrieta (Arrasate, 1979ko urtarrilaren 12a).

Artistak, finean, horixe du berezi: munduan egoteko modua.

Goitibeheren inguruko guztia bildu nahi izan dute, goitibeherak, euren sinpletasunean, beste gauza asko biltzen dituztelako euren baitan. Errepideak, galipota, aldapak, errodamentuak, herriak, bailarak, festak, taldeak, fabrika bizibide eta ia bizimodu daukan jendea, asmamena, jakintza partekatua, eta beste gauza asko.

Aspaldi entzun nion Usue Arrietari goitibeherak “herri kirol industrial” zirela. Beharbada beste ezerk baino hobeto erakusten dute jada badoan mundu bat, industriarena, herri kirolek base-riko bizimodu galdua erakusten duten bezala. ■